



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena

2018ko martxoaren 15ean, 12:00ak direnean, Ohiz kanpoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. IKASTETXE PUBLIKORAKO LURSAILAREN SARBIDEA ETA ZERBITZUEN URBANIZAZIOA.

Idazkariak irakurri du 2018ko otsailaren 26ko kontratazio-mahaiaren akta, zeinean “IKASTETXE PUBLIKORAKO LURSAILAREN SARBIDEA ETA ZERBITZUEN URBANIZAZIOA” izeneko proiektuan dauden obren kontratuaren esleipen proposamena egin baitzen. Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 74. artikuak xedatzen duena kontuan hartuz, aho batez erabakitzen da:

1. “IKASTETXE PUBLIKORAKO LURSAILAREN SARBIDEA ETA ZERBITZUEN URBANIZAZIOA” izeneko proiektuan dauden obrak esleitzea APEZETXEA ANAIK SL enpresari, B31950488 IFK, hogeita hamahiru mila zortziehun eta hirurogeita sei eurotan (33.866 €), gehi BEZa (% 3ko beherapena). Lanak, 3 asteko epean bukatu beharko ditu, hasiera-aktako datatik hasita. Obraren bermea 5 urtekoa izango da.

2. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. Francisco J. Chocarro San Martin izendatzea obrako zuzendari teknikoa.

4. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari, eskaintzak aurkeztu zituzten enpresei eta obrako zuzendariari.

5. Esleipenaren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturaleko epean (6/2006 Foru Legearen 93. artikulua).

Eta bertzerik ezean, 12:30ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.